

Euskal Herriko Eliza

Euskaldunon Egunkaria, 1993-04-27: 2.

Euskal Herririk badalako, eta Euskara bere jatorriko hizkuntza, bada gaur Euskaltzaindirik. Eusko Ikaskuntzarik eta Eusko Jaurlaritzarik. Baita Euskal Herriko Elizarik ere. Geure herriaren izanak dakartza berez deiturak, eta gerra zibila piztu zutenek ekarri zuten jokabideak sortu zuen berez munduan zehar ezaguna izan zen Eusko Apezteria edo "Clero vasco", "Basque Clerge" eta "Basque Clergy". Bada beste erakuspide askoren artean 1960an 339 euskal apezek izenpetu eta gotzaiei bidali zieten gure herria sufritzen ari zen zapalketa salatzeke adore handiz eginiko agiria. Zorionez, orduan Aita Saindu zen eta oraindik saindu gogoangarri bezala sentitzen dugun Joan XXIII.ak sortu zuen beste sinesmenenganako irekitasun berri bat eta aitortu zuen argi asko bere "Pacem in terris"en bidetik herriak eta kulturak dituzten eskubideak (1963). Eliza beraren bidetik ukaezina da euskaldunok Eliz Barruti baterako duguna. Halere, gure herriak Elizaganako erakutsi duen emankortasuna eta menekotasuna ez da nahiko izan oinarrizko giza eta herrien eskubideen dina izateko. Ez dugu oraindik Eliz barrutirik. Eta gaur bertan kezkatu gaude geure herriko gotzain jatorren arauzko den ordezteko kinkaren aurrean. Lehenengoak, Iruñeko Artzapezpikuak, ez du, ez jatorriz ez hizkuntzaz, gure herria ulertzeko behar duen minimorik erakutsi. Honek kezka berri larrietan sartzen gaitu ordezteko falta direnen kasuetarako, eta ez du Euskal Herriak honelako trataturik merezi.